

Ordizian, **2017ko ekainaren 29an** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

José Miguel Santamaría Ezeiza Jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Joseba Aranburu	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Maria Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTU-HARTZAILEA:**

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

**BERANDUAGOKO SARTZEAK**

## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2017ko maiatzaren 25an egindako ohiko osoko bilkurako akta onartzea.
2. Maiatzeko Alkatetza Dekretuen berri ematea.
3. GEHITUren manifestua LGTBI kolektiboari buruz
4. Terraza eta mahaitxoak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa
5. Ostalaritzaren erabilera arautzen duen Ordenantzaren aldaketa
6. 2017ko Plantila Organikoa onartzea
7. 2017ko lanpostu zerrenda onartzea
8. Ordiziako Udaleko Erakunde Autonomo eta Sozietateetako langileen soldaten igoera onartzea
9. 2017rako Gobernu taldearen inbertsio proposamenak
10. Galderak eta eskaerak

### **PREMIAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

## **ORDUTEGIA**

**HASIERA: 19:00etan**

**AMAIERA: 21:10an.**



## **1.- 2017ko maiatzaren 25an egindako osoko bilkurako akta onartzea.**

### Proposamena

2017ko maiatzaren 25ko ohiko Osoko bilkurako akta onartzea

### Eztabaida

#### Dubreuil jn.:

12. puntuko (41.orrialdeko) "Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Inmigrazioa, eta Kooperazioa" bozketaren emaitza zuzentzea eskatu du, aktan jasotzen da bere bozka kontra eta alde izan zela.

**Zuzenketa egin da.**

#### Maiza and.:

Euskarazko aktaren 20. orrialdean eta gaztelerazkoaren 21. orrialdean Buztuntza izena gaizki jasota dagoela esan du. BUZTUNTZA da eta ez BUSTUNTZA.

**Zuzendu da.**

### Bozketa

Zehaztutako zuzenketak egin ondoren, bozketa egin da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)  
Kontrako botoak: 0  
Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak bigarren puntuaren berri eman du.

## **2.- Maiatzeko Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Maiatzean Alkatetzak onartu zituen dekretuen berri eman da osoko bilkuran.

#### Maiza and.:

B17/0419 zenbakidun dekretuaz (6. orrialdean) galdetu du.

#### Alkate jn.

Informazioa eman dio.

**Osoko Bilkurak dekretu zerrendaren berri izan du.**



### **3. kontu-hartzailearen 3/2017 ingeraren berri ematea**

Idazkariak adierazi du puntu hau ez dela eguneko gai zerrendan sartu Kontu-hartzailearekin izandako gaizki-ulertu batengatik baina honek 3/2017 Ingera idatzi du arauz kontrako kontratuei buruz.

Horrekin batera 0546 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren berri ematen da eta horren bidez emandako zerbitzuen fakturak zuritu eta ordaintzeko agindua ematen da, nahiz eta egunean ez egon, beharrezkoak baitira zerbitzu horiek.

**Osoko bilkura jakinaren gainean dago.**



### **4. GEHITUren manifestua LGTBI kolektiboari buruz**

Proposamena

#### **2017ko EKAINAREN 28ko MANIFESTUA**

##### **GEHITU**

Aurten ere, 1969ko ekainaren 28ko goizaldean

Stonewall Inn tabernan gertatutakoaren oroimenak bultzatuta, LGTBI kolektiboko kideok

beste behin bilduko gara eskubideak errebindikatzeko eta aniztasunetik abiatuta errespetuaren eta bizikidetzaren alde egiteko. Orain arte lortutako guztia ospatu eta oraindik lortzeke daudenak nabarmendu nahi ditugulako egun horretan.

Aurten lortu ditugun zenbait aurrerapen azpimarratuko ditugu jarraian, eta benetan uste dugu jauzi kualitatiboa ekar dezaketela LGTBI pertsona askoren eguneroko errealitatean, besteak beste:

- Joan den maiatzaren 4an, FELGTB Lesbiana, Gay, Transexualeta Bisexualen Estatu Federazioak sustatutako *LGTBI berdintasunaren aldeko Lege Proiektua* erregistratu zen, eta Gorteetan ordezkaritza duten ia alderdi politiko guztien babesa jaso du. Espero dugu lege-proiektu hori, oraintxe bertan parlamentu-izapidea hasten ari dena, lehenbailehen errealitate bihur dadin.
- Martxoaren 10ean *tratu-berdintasunerako eta diskriminazioaren aurkako Lege Integraleko Proposamena* aurkeztu zen Diputatuen Kongresuan, eta, gugandik

*gertuago, Eraberean, eta Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Euskal Sarea* jarri dira abian, bi ekimen positibo ildo horretan.

Baina hala eta guztiz ere aurrera jarraitu behar dugu LGTBI kolektiboko kideoi bizitza zailago egiten diguten traba guztiak salatzen eta agerian jartzen. Maila horretan, honako hauek salatu nahi ditugu:

- Agerikoa da nazioarteko espektro zabalean LGTBI kolektiboak giza eskubideen urraketari egin behar diola aurre; izan ere, 70 herrialde baino gehiagoko lege-esparruek sexu-harremanak zigortzen dituzte, eta 11 herrialdetan heriotza-zigorren aukera ere aintzat hartzen dute arrazoi horrexegatik. Ildo beretik, sexu-joera eta/edo genero-nortasuna tarteko egindako gorroto-delitu ugariak salatzen ditugu, eta egoera hori geldiarazteko neurriak hartzeko eskatzen dugu.
- Gure ingurunean diskriminaziozko gertaerak eta/edo hitzezko eraso zein eraso fisikoak ikusten jarraitzen dugu, eta horrek agerian uzten du sexu-aurreiritzi batek indarrean jarraitzen duela; horren arabera, sexualitateen artean hierarkia moduko bat ezartzen da, eta horrelakoak gertatzeko oinarriak finkatzen dira.
- Trans kolektiboa patologizatu egin da, eta kolektibo horren premiei beren osotasunean eta generoa askatasunez adierazteko eskubidetik abiatuta helduko dien estatu-lege bateraturik ez dago.
- Trans adingabeak espezifikoki aipatuz, zenbait sektore erreakzionario sexua/generoa bizitzeko moduarekin zerikusia duten eskema zaharkituak iraunarazten ahalegintzen dira behin eta berriz, horrela gizarteak alor horretan egindako aurrerapenak bertan behera uzteko.
- Oraindik ere familia homoparentalek diskriminaziozko baldintzak pairatzen dituzte laguntza bidezko ugalketako teknikei, adopzioari eta filiazioari dagokienez.

Botere publiko, estamentu ofizial eta ikastetxe guztiei eskatzen diegu, halaber, gure kolektiboarentzat gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzea ahalbidetuko duten neurriak har ditzan, eta, ildo horretan, honako eremu hauei ematen diegu lehentasuna:

- Hezkuntzan sexu- eta genero-aniztasuna integratzea, alor horretan ideia berriak sortzen laguntzea, eta sexu-orientazioagatiko eta genero-nortasunagatiko eskola-jazarpenari aurre egiteko prebentzio-lanaren oinarriak jartzea.
- Emakume lesbiana agerian jartzea, haren errealitatea onartzeko eta gizartean legitimatzeko, eta haren eskubideak askatasunez baliatzeko neurriak abian jartzeko eskatzea.

- Esparru heteronormatiboaren alternatiba eta aniztasunaren espektro zabalaren parte izanik, legitimitatea eta errespetua behar duten sexualitate guztiak agerian jartzea.
- Sarritan alde batera uzten diren biztanle-sektoreak, hala nola hirugarren adinek pertsonak eta/edo dibertsitate funtzionala dutenak, agerian jartzea, eta haien sexu eta afektibitate-aniztasuna bizitzeko eskubidea bermatzea.
- GIBaren inguruko eta estigmaren eta diskriminazioaren aurkako Estatu-itun bat onartzea. Premiazkoa da maila horretan abordatze integralak gauzatzea, GIBari bere alderdi guztietan erantzuteko, Gobernuetako, alderdi politikoetako, sindikatu etako eta patronaleko eta GKEetako ordezkariak inplikatu.

Hasieran aipatu dugunez, ekainaren 28 honek beste aukera bat eskaintzen digu lorpenak eskaintzeko eta oraindik lortzeko dagoena nabarmentzeko. Aldez aurretik aipatutako gertaerak horren adierazgarri dira. Gehitu Elkarteak urteak daramatza ekimen horretan bere ekarpen txikia eginez, baina ekainaren 28an, LGTBI harrotasunaren nazioarteko Egunean, asmo hori berretsi nahi dugu beste behin ere, eta elkarlanerako deialdi bat egin nahi dugu, aipatutako plano guztiekin bat etorriz, BERDINTASUNAREN erronka handi hori azkenean errealitate izan dadin.

Halaber, partikularrei eta erakunde guztiei dei egiten diegu ostadar-bandera harrotasunez erakutsi dezaten, kolektiboaren berdintasunaren aldeko borrokarako ikurra den aldetik, gure gizarteak pertsona guztientzako giza eskubideak lortzeko bidean aurrera egin dezan lortzeko hainbat pertsonak, elkartek, GKEk eta botere publikoek batera egiten dugun ahaleginaren adierazgarri.

2017 LGTBI HARROTASUN egun zoriontsua!!!!

Udal honek mozioa onartzen du eta tolerantzia eta errespetuaren aldeko keinu bat egin du zebra-bide bat mugimenduaren koloreekin margotuz.

Horrez gain, Udal honek, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Ekainaren 28ko 14/2012 Legea, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa berrikui dezan.

#### Eztabaida

Alkate jn.

Proposamenarekin Udalak adierazpenarekin bat egiten duela azaldu du eta adierazi du adierazpenaz gain Udalak 2 ekimen egin dituela:

- 1.- Zebra-bidea margotu kolektiboaren identifikazio koloreekin.
- 2.- Eusko Jaurlaritzari ekainaren 28ko 14/2012 Legea berraztertze eskatzea, Transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, nahiz eta duela gutxikoa izan, egokitu egin behar baita.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



### **5.- Terraza eta mahaitxoak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa**

#### Proposamena

#### **BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK JARTZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILAREN ALDAKETA**

2012ko abenduaren 20an osoko bilkurak onartutako eta 2013ko apirilaren 25eko osoko bilkuraren erabaki bidez aldatutako Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal Ordenantza arautzailea aldatzeko espedientearen berri ematen da.

Dokumentu hau aldatu egin behar da gaur egungo beharretara egokitu eta zenbait artikulua edota kontzeptu argitzeko.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 d) artikulua xedatutakoaren arabera, udalbatzari dagokio ordenantzak onartzea

49. artikulua xedatutakoa betez, tokiko ordenantzak onartzeko eta aldatzeko, honako bide hauek jarraituko dira:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaltzea eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartzea.

Ondorioz, 2017ko ekainaren 21eko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatu da:

#### **AKORDIO PROIEKTUA**

1.- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal Ordenantza arautzailearen aldaketa onartzea hasierako izaerarekin, honako atal hauetan:

## **5. Artikulua. 3 atala**

Ondorengo esaten duen lekuan:

3. Terrazaren espazioak ez du jarduera nagusiko establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko, ondoan dituen merkataritzako lokalen edo gainerako lokalen idatzizko baimenik ez badu behintzat, eta etxebizitza eta gainerako lokaletara igarotzeko bidea ez dute oztopatuko.

Ondorengo esan behar du:

“Terrazaren espazioak ez du jarduera nagusiko establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko, **ondoan edo parean dituen merkataritzako lokalen** edo gainerako lokalen idatzizko baimenik ez badu behintzat, eta etxebizitza eta gainerako lokaletara igarotzeko bidea ez dute oztopatuko ”

## **6. Artikulua. 2 atala**

Ondorengo esaten duen lekuan:

2.- Terrazaren espazioak ez du jarduera nagusiko establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko, ondoan dituen merkataritzako lokalen edo gainerako lokalen idatzizko baimenik ez badu behintzat, eta etxebizitza eta gainerako lokaletara igarotzeko bidea ez dute oztopatuko.

Ondorengo esan behar du:

“Terrazaren espazioak ez du jarduera nagusiko establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko, **ondoan edo parean dituen merkataritzako lokalen** edo gainerako lokalen idatzizko baimenik ez badu behintzat, eta etxebizitza eta gainerako lokaletara igarotzeko bidea ez dute oztopatuko ”

## **7 Artikulua. 2. atala, 4. parrafoa**

Ondorengo esaten duen lekuan:

“- Gutxienez 4 metro utzi beharko da mahaien eta mahaien jabe den establezimenduaren pareko fatxaden artean.”

Ondorengo esan behar du:

“- Gutxienez **3 metro** utzi beharko da mahaien eta mahaien jabe den establezimenduaren pareko fatxaden artean.”

## **8. Artikulua**

Gaur egungo 1, eta 2. Atalak kendu eta hurrengo atalak ipiniko dira:

“1.-Mahai eta aulkietarako, aluminioa eta egurra lehenetsiko dira, eta kolore neutroak. Inola ere ezingo da erabili dagokien markaren kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko plastikozko altzariak. Mahaiek eta aulkiek gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, ahal den neurrian zaratak arintzeko eta bizilagunei ahalik eta



*traba gutxien eragiteko. Aise pilatzeko modukoak izango dira, bilduta daudenean ahalik eta espazio gutxien okupa dezaten.*

*2.- Eguzkitakoek oihalezkoak, marrazkirik gabeak eta kolore bakarrekoak izan behar dute. Ezingo dira kolore deigarriak erabili, eta suaren aurkako erreakzioa m<sup>2</sup> motakoa izango dute. Eguzkitakoek ezingo dute gainditu terrazaren hedadura, oinplanoko proiektzioan, ezta inolako itxi tura bertikalik eduki ere. 2,20 m-ko altuera utzi behar dute libre, gutxienez. Euskarri finkorik gabe eta zoruari lotu gabe ezarri behar dira, aise garraia tzeko moduko kontrapisuetan bermatuta.*

*3.- Terrazaren alboetan manparak ezarri ahal izango dira, haizetik babesteko, baina egunero desmuntatu eta establezimenduaren barruan gorde beharko dira. Zoruari lotu gabe ezarriko dira, eta gehienez 1,60 m bitarteko altuera izan behar dute.*

*4.- Manparek beira gardenekoa izan behar dute altueraren %50, gutxienez. Okupaziorako baimendutako espazioa hiru aldetatik zedarritu ahal izango da. Laugarren aldeak, berriz, irekita eduki behar du luzeraren % 50, gutxienez.”*

2.- Arautegi hori jendaurrean jartzea 30 egunez, Udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik.

3.- Erreklamaziorik ez balego, Araudia behin betiko onartutzat emango da, hitzarmen berririk egiteko beharrik gabe.

#### Eztabaida

Iturrioz jauna

Aldaketak zertan datzaten azaldu du.

Maiza and.:

Esan du Ordenantza honek aldaketak proposatzen dituela egoerak arautzeko izan ere ostalaritzan gertatzen ari diren egoerak dira. Oinezkoengan ere pentsatu behar dela esan du eta kaleak eta bideak publikoak direla, guztiok erabiltzeko.

Ezenarro jauna

Galdetu du ea osoko bilkurarako gaien batzordean mahaigaineratu zen zalantza argitu den, establezimenduaren fatxadarekiko 3 metroko banaketari buruzkoa.

Iturrioz jauna:

Erantzun dio esanez distantzia hori soilik plazan kokatutako terrazei soilik eskatzen zaiela.

Sukia andrea

Galdetu ea mahaiak eta aulkiak, establezimendua itxi ondoren kendu egin behar diren eta barrura sartu behar diren. Oso gaizki iruditzen zaio materiala kanpoan pilatuta uztea.

## Iturrioz jauna

Erantzun dio esanez establezimendu guztiek ez dutela toki nahikorik horretarako.

## Idazkariak:

Azaldu du hasierako onarpena dela honakoa eta erakusketa publikoan izan ondoren behin betiko izaeraz onartuko dela.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 ( EAJ-PNV 5 eta PSE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 2 (ORDIZIA ORAIN)

Abstentzioa: 5 (EH-BILDU 5)

## Kepa Korta jauna:

Jendartean izanik esan du 2016ko urrian erregistratu zutela idatzi bat Udalean bera bizi deneko Etxezarreta kaleko eta egoera bera jasaten duten herriguneko beste kale batzuetako egoera salatuz.

Adierazi du ez dagoela kontrolik, eta bere ustez garrantzitsua da herritarrei zer pentsatzen duten galdetzea eta hori jakitea.

Beste alde batetik, ostalaritza establezimenduak ixteko ordutegia luzatzea onartzen denean, eskatu du kaltetutako bizilagunei galdetu eta entzuteko.

Asteburu honetan, adibidez, ixteko baimendu den ordutegia 6:30 da eta 7:00ak bezeroek tabernak utzi behar dituzteneko azken ordua. Noiz hartuko dute atseden bizilagunek?

## Alkate jn.

Gaia aztertuko dutela erantzun dio.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

## **6. Ostalaritzaren erabilera arautzen duen Ordenantzaren aldaketa**

### Proposame

**OSTALARITZA ETA JOLAS INSTALAZIOAK JARTZEKO ORDENANTZA  
ARAUTZAILEAREN ALDAKETA**

Udal Plenoak 1999ko ekainaren 22ko bileran, 2012ko uztailaren 18ko bileran eta 2012ko abenduaren 20 bileran aldatutako Ostalaritza eta Jolas instalazioak jartzeko ordenantza arautzailea aldatzeko espedientearen berri eman da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua dioenari jarraiki, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatzen dituena, Osoko Bilkurari dagokio Araudiak eta Ordenantzak onartzea.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 d) artikulua xedatutakoaren arabera, udalbatzari dagokio ordenantzak onartzea

49. artikulua xedatutakoa betetz, tokiko ordenantzak onartzeko eta aldatzeko, honako bide hauek jarraituko dira:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaltzea eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartzea.

Ondorioz, 2017ko ekainaren 21ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatu da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

Ostalaritza eta Jolas instalazioak jartzeko ordenantza arautzailearen 8.2 artikulua aldatzeko espedientea hasieraz onartzea, honakoaren arabera:

#### **8. Artikulua. Toldoak**

Artikulu honetako 2. atala honela idatzita geratuko da:

##### Esaten duen lekuan:

“2.- Aldameneko toldo arinen edo holtz kengarrien instalazioa onartuko da gehinenezko altuera 1,40 metro izango delarik (honetarako dagokion proiektua aurkeztu beharko da eta Udalak aztertuko du, erabiliko diren material eta bestelakoak kontutan izanik).”

##### Esan behar du:

**“2.- Aldameneko toldo arinen edo holtz kengarrien instalazioa onartuko da gehinenezko altuera 1,60 metro izango delarik (honetarako dagokion proiektua aurkeztu beharko da eta Udalak aztertuko du, erabiliko diren material eta bestelakoak kontutan izanik ).”**

2.- Arautegi hori jendaurrean jartzea 30 egunez, Udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik.

3.- Erreklamaziorik ez balego, Araudia behin betiko onartutzat emango da, hitzarmen berriak egiteko beharrik gabe.

#### Eztabaida

Iturrioz jauna

Aldaketa azaldu du.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

### **7. 2017ko Plantila Organikoaren hasierako onarpena**

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen 1.985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriarekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak Udal honetako 2017 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OAAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2017 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta onartzeko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordean aurkeztu.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta maiatzaren 17an egindako Plenoren Gaiaren Batzordearen aldeko irizpidearekin honako erabakia hartzea proposatzen da

## AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.-** 2017 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa hasieraz onartzea, Udal honetako langile eta funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.

**Bigarrena.-** Majori kiroldegia SL eta OOAAen (San Jose Egoitza eta herri Antzokia) Plantilla organikoak hasieraz onartzea, 2017 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen.

**Hirugarrena.-** Espedientea jendeurrean jartzea, hamabost lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

**Laugarrena.-** Agiri hauek behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

### Eztabaida

Plantillaren gaia aurreko ekainaren 26ko Ordiziahitzen Batzorde Paritarioan aztertu zen eta gaur egun hutsik dauden eta bitarteko funtzionarioak betetzen dituzten plazak betetzeko denboran zehar planifikazio bat egitea proposatu zen, eta horrekin batera lanpostuei esleitutako hizkuntza eskakizunak betearaztea. Aipatutako planifikazioa egin arte puntua mahai gainean uztea erabaki da.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Gaia aztertzeko geratu da.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **8.- 2017ko lanpostu zerrendaren hasierako onarpena**

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren

arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.

Idazkaritzak eta Kontu-hartzailtzak egindako arauzko txostena irakurri da, eta horri erantsi zaio lanpostuen gastuen azterketa eta aurreikusitako Sarrera Arruntekiko portzentajezko aldea.

Horrekin batera, hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldegia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2017 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik eta maiatzaren 17an egindako Plenoren Gaien Batzordearen aldeko irizpidearekin honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- 2017 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN eredian dagoen bezala.**

**Bigarrena.- Majori Kiroldegia SL-ko eta OOAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2017 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak hasieraz onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.**

**Hirugarrena.- Espedientea jendeaurrean jartzea, hambost lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagozkion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.**

**Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**

#### Eztabaida

Aurreko puntuan azaldutako arrazoi beragatik puntua mahai gainean uztea proposatu da.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Gaia aztertzeko geratu da.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

### **9.- Ordiziako Udaleko Erakunde Autonomo eta Sozietateetako langileen soldaten igoera onartzea**

#### Proposamena

#### **UDALAREN MENPEKO ERAKUNDE AUTONOMO ETA SOZIJATEETAKO ENPLEGATU PUBLIKOEN SOLDATA IGOERA ONARTZEA**

2017ko apirilaren 27ko osoko bilkuran Udaleko enplegatu publikoen soldata ehuneko 1 igotzea onartu zen, igoera hau gobernu zentralak proposatutako soldata igoeraren mugan kokatua dago (2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrari buruzko Legean dagoeneko onartutako soldata igoera, gehienez ehuneko 1ekoa) eta luzatutako gure aurrekontuek uzten dutena da, gehienez ehuneko 1a.

Hala ere, nahia Udaleko langile eta Udalaren menpeko erakundeetako langile guztientzako soldata igoera onartzea bazen ere, onartutako akordioak ez du langile guztientzako igoera jaso.

Ordiziako Udaleko funtzionarioen lan-baldintzen inguruko akordioak (ORDIZIAHITZ) ez du berariaz jasotzen Udalaren menpeko erakundeei aplikatuko zaizkien baldintza horiek baina ondorengo, aldiz, jasotzen da: bertan arautu gabekoari UDALHITZ aplikatuko zaiola eta azkeneko honek, Euskadiko Toki Erakundeetako Lan Harremanen Marko Sektorialaren Protokoloan ezartzen du bere ZORTZIGARREN akordioan "Akordio hauen funtzio eremuan Tokiko Administrazio Publikoa osatzen duten lurralde entitateak eta erakundeak sartzen dira, udalerriak eta baita udalerrien menpeko erakundeak ere."

Hori guztia ikusita, Udaleko langileei onartutako soldata igoera Herri Antzokia EAKo, San Jose Egoitza EAKo eta Majori Kiroldetia SM sozietate publikoko langileei ere aplikatu beharko litzaieke.

2017ko ekainaren 21eko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

## AKORDIO PROPOSAMENA

- HERRI ANTZOKIA EAko, SAN JOSE EGOITZA EAko, eta MAJORI KIROLDEGIA SM sozietate publikoko enplegatu publikoei ehuneko 1eko soldata iguera onartzea, 2017ko urtarrilaren 1eko atzeraeraginez.
- Akordio honen berri ematea zehaztutako erakundeei.

### Eztabaida

Ordiziahitz hitzarmena Udaleko nahiz bere menpeko erakundeetako langile publikoei aplikatzen zaie, baina %1eko igoyeraren erabakia hartu zenean Udaleko funtzionarioentzako partida finkatu zen soilik.

Beraz, Herri Antzokia, San Jose Egoitza eta Majori Kiroldetgia SLrako ere %1eko soldata iguera onartzea beharrezkoa da, eta dagokion ekarpena egitea.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.**



Hurrengo puntura pasa aurretik Sukia andreak adierazi du Osoko Bilkurarako Gaiien Batzordean Ordizia Orainek aurkeztutako mozio bat sartzea eskatu zuela eta ez dela gai-zerrendan sartu.

### Idazkari andrea

Erantzun dio esanez aktan jaso zuela horrela ulertu zuelako, bidegorriari buruz EH-BILDUk aurkeztu zuen mozioa eta mozioen eraginkortasunari buruz Ordizia Orainek aurkeztu zuen mozioa uztailleko plenoan sartuko zela, ez zutelako presazko izaerarik bi mozioek.

### Sukia andrea

Esan du hori ez dela horrela eta agian Osoko Bilkurarako Gaiien Batzordeko bilerak ere grabatu egin behar direla.

Nolanahi ere, Sukia andreak gai zerrendan 2 mozioak sartzea nahi du.

1.- Ordizia Orainek eta EH-Bilduk proposatutako inbertsioei buruzko mozioa.



2.- Enirio-Aralar Mankomunitatearen 7 udalerrik aurkeztu duten eskaerari atxikitzeko mozioa, datorren astelehenean Mankomunitatearen ezohiko Zuzendaritza Batzordean aurkeztuko duten Ekintza Planari buruzkoa.

### Bozketa

Bi mozioak sartzeko bozketa egin da.

1.- Ordizia Orainen eta EH-Bilduren Inbertsioei buruzko Proposamena.

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Proposamen hau gobernu taldearen inbertsio proposamenarekin batera aztertuko da.**

2.- Enirio-Aralar Mankomunitatearen 7 udalerrik aurkeztu duten eskaerari atxikitzeko mozioa, datorren astelehenean Mankomunitatearen ezohiko Zuzendaritza Batzordean aurkeztuko duten Ekintza Planari buruzkoa.

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Mozioa 11. puntuan aztertuko da.**



## 10.- 2017rako Gobernu taldearen inbertsio proposamenak

### Proposamena

15100 Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina.						
Pallida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA
1 642.01.151.00 2017	3854	CREDITO DE COMPROMISO 3 ANOS; REDACCION DEL PLAN GENERAL	0,0 0	2017: 47.836,00 2018: 47.836,00 2019: 47.836,00	2017: 47.836,00 2018: 47.836,00 2019: 47.836,00	0,00
1 642.02.151.00 2017		OBRAS Y PROYECTOS SAN BARTOLOME	0,0 0	380.000,00	380.000,00	286.000,00
1 642.03.151.00 2017		REDACCION PROYECTO DEL PARKING	0,0 0	60.000,00	60.000,00	0,00

Alkate jn.

Onartzeko proposatzen diren 3 partiden berri eman du:

- 1.- Plan Orokorra idazteko 2017, 2018 eta 2019rako kreditu konpromisoa.
- 2.- San Bartolomeko obretarako proiektuaren exekuzioa.
- 3.- Barrenako aparkaleku proiektuaren idazketa.

EH-Bilduk eta Ordizia Orainek beste inbertsio proposamen bat aurkeztu dute.

#### Eguren jn.:

Proposamena zergatik aurkezten duten azaldu du. Ez dute iritzia aldatuko gobernu taldeak inbertsio berak ekartzen baditu osoko bilkuraz osoko bilkura.

Beraiek hasieratik esan zuten inbertsioz inbertsio onartuko zituztela herriarentzako onuragarria iruditzen zitzaiena.

San Bartolomeko obrei dagokienez birmoldatutako proiektuari buruzko informazioa eskatu zuten, bi plano jaso dituztela esan du eta asko ez bada ere zerbait dela adierazi du, hori dela eta onartzea proposatzen dute. Baina aurreko ekitaldietan onartuta zeuden eta burutu ez ziren beste inbertsio batzuk gehitu dituzte eta gobernu taldeak kontuan izan ez dituen beste batzuk ere bai.

Beraien Inbertsio proposamena honako hau da:

1. Kultur jardueretarako lokalak erostea
2. Irisgarritasunerako inbertsioak
3. San Bartolomen obrak.
4. Kalea garbitzeko makina erostea

Proposamena guztira 443.000 €koa izango litzateke.

Ez zuten horiek proposatzeko asmorik baina gobernu taldeak bi aurreko osoko bilkuretan inbertsio berberak berriro proposatu dituela ikusita, beraiek beraien proposamenak egin dituzte.

#### Ezenarro jauna

Plan Orokorrari buruz esan du ez dutela erabakirik hartu egiteko moduaren inguruan baina aurreko osoko bilkuran partaidetza programarako behar zen partida onartu zuten, eta hori da behar dena une honetan Aurrerapen dokumentua onartzeko. Adierazi du plan orokorra idazteko bi era daudela, etxean edo kanpoan. Orain bi moduetatik egokiena aztertzeke unea da.

Planaren idazketa lizitatu duten Udal batzuetako zenbatekoak aztertzen ari dira. Udaleko zerbitzuek idaztea urtean 97.000 € balio du, eta horretarako 4 urteko iraupena izango duen tramitazioa aurreikusita gutxi gorabehera 400.000 euroko kopurua aurreikusten da. Horrez gain, bestelako gastu batzuk gehitu behar zaizkio: aholkularitza juridikoa, ingurumen eta ingeniarietza azterketak eta abar.

Etxean egitea askoz garestiagoa dela argi geratzen da, guri gutxienez gehiago kostatzen ari zaigu.

Lanak kanpoan esleitu dituzten Udalen datuak jakinarazi ditu eta esleipenen zenbatekoak ere bai.

Ez daude gastu konpromiso hori 3 urterako hartzeko prest.

#### Alkate jn.

Erantzun dio esanez azterketa hori egin zela 2010. urtean, eta udal arkitektoa Donostiako Plan Orokorra egitetik zetorrela kontuan izanda eta udalerriko kasuistika inork baino hobeto ezagutzen zuela kontuan izanda, berak idazteko aukeraren alde egin zen.

Gastua txikiagoa zen Udalean eginda kanpoan lizitatzea baino.

Plana gehiegi atzeratzen ari da eta hori da arazoa.

Adierazi du aholkularitza juridikoa une honetan beharrezkoa dela aurrerapenaren erakusketa publikorako eta baita Oiangualde eremurako EH-Bilduk eskatu duen txosten juridikorako ere. Erakusketa publikoaren fasean erantzuna behar duten alegazioak aurkeztu daitezkeela gehitu du eta sor daitezkeen zalantzak ere bai. Bukatzeko, trenbidearen lekualdaketa azterketa ere hor dago, plan orokorrean sartu behar dena.

#### Ezenarro jauna

Oiangualde eremuan erabileren aldaketei buruzko txosten bat eskatzea egokia iruditu zitzaion Udalak ez dielako erantzunik eman beraien eskaerari.

Azkenik, esan du ez direla gaiak nahastu behar Madrilek onartu duena proiektua idazteko aurrekontua baita. Horrek ez du esan nahi obrak egingo direnik eta ez du uste Udalak kudeatuko duenik, azkenean obra horiek egiten badira.

#### Sukia andrea

Esan du bestela ere badirela konpondu beharreko arazoak herrian eta ez direla mahai gainean ipini behar oraindik sortu ez diren arazoak eta gertatzen bada, orduan erabakia hartuko da.

#### Dubreuil jn.:

Bere ustez plana idazten ari den arkitektoak eta udal kontu-hartzaileak ere egin beharko lukete azterketa ekonomikoa. Konparazio azterketa bat egin beharko lukete, bestela, gaiak blokeatuta jarraituko du.

#### Sukia andrea

Esan du ez duela eskura izan lehen aipatutako 2010eko azterketa ekonomikoa hori.

#### Maiza and.:

Adierazi du, plana udal arkitektoarekin egitea adostu zenean, epe baterako eman zitzaion eta hasieran aurreikusi zena baino gehiago luzatu zen eszedentziaren ostean onartzea edo ez onartzea egokia ote zen eztabaidatu zutela. Planaren idazketan udal arkitektoaz hitz egiten da baina benetan diziplina askotako kanpoko aholkularitzetara jo behar izan da.

#### Idazkariak:

Eszedentziarik ez zitzaiola eman argitu du, beste Administrazio batera igaro zen Zerbitzu Eginkizunetan epe baterako nahiz eta gero epe hori luzatu.

#### Kontu-hartzaileak

Esan du ez dakiela gaur inbertsio akordiorik onartu behar den baina argitu du gero luzatuko den aurrekontuan kreditu gehikuntzarekin inbertsioak onartzen badira gero ezin direla gutxitu.

#### Eguren jn.:

Bere taldearekin eta Ordizia Orainekin gaia aztertzeko geldiune bat eskatu ondoren esan du San Bartolomeko proiektuaren obrak onartuko dituztela soilik, horrekin bat egiten dutelako gobernu taldearekin baina gainerako proposamenak bozkatzea proposatzen dute, badakitelako ez badute bozkatzen hurrengo osoko bilkuran berdin jarraituko dutela.

#### Kontu-hartzaile jn.

Gogorarazi du EH-Bilduren eta Ordizia Orainen proposamena onartzen bada esku artean dugun finantzaketa guztia xahutzen dugula eta agian hobea litzatekeela proposamenak adostea.

#### Sukia andrea

Adierazi du gobernu taldearen proposamena onartzen bada, berdin-berdin geratuko direla beste inbertsioak finantzaketarik gabe.

#### Eguren jn.:

Kontu-hartzaileari erantzun dio esanez izan dutela nahikoa denbora adosteko eta ez dutela lortu.

Ez bada kultur jardueretarako lokalen erosketa onartzen hipotekatuta geratuko dira beste 2 edo 3 urterako.

San Bartolomeko obrei dagokiena adostea lortu dute talde politiko guztiek, nahiz eta proiektua ez zaien garaiz eta modu egokian iritsi.

Urtea ia amaitzen ari da aurrekonturako festetan eta oporretan sartzen ari garelako eta Udala berriro lanean hasten denerako iraila erdialdean gaude.

#### Ezenarro jauna

Kontu-hartzaileari galdetu dio gobernu taldearen proposamena onartuz gero egoera berean egongo liratekeen.

#### Kontu-hartzaile jn.

Ezetz erantzun dio proposatutako zenbatekoak txikiagoak direlako.

Plan Orokorraren aurtengo gastua 47.000 €koa da nahiz eta gastu konpromisoa 3 urterako izan.

#### Alkate jn.

Geldiune bat egitea proposatu du lau taldeen artean gaiari buruzko erabaki bat hartzeko.

#### Eguren jn.:

Alkateari esan dio alkateak egoera larriez hitz egiten duela gauzak ez zaizkionean nahi bezala ateratzen. Ez du ulertzen zergatik tematzen den Barrenako aparkalekuaren kontuarekin berriro.

### Maiza and.:

Guztia adar-jotze bat dela esan du. Guztiok dakigu Herri Antzokirako jarduketa integral bat nahi badugu beharrezkoa dela Sukia jaunaren lokala erostea. Kaletik jakin dute zerbaitetan dabiltzala gai horren inguruan.

Alkateari jakinarazi dio gutxiengoan gobernatzen ari direla eta hala ere gehiengo izango balute bezala gobernatu nahi dutela. Oso haserre dago. Ez dira gaiak lantzen.

Geldiunea egin eta gero.

### Alkate jn.

Jakinarazi du ezin izan dutela akordio bat lortu.

San Bartolomeko obren proiektu proposamena bozkatuko dela azaldu du, horrekin denek bat egiten dutelako eta gero bereizita EH-Bildurena, hortik obra horiek kenduta.

### Eguren jn.:

Esan du agian honek inflexio puntu bat finkatuko duela etorkizunerako baina horretara iritsi direla ez dutelako beste erremediorik izan.

Hori dela eta, beraien proposamena bereiziko dute.

### Aranburu jauna.

Maiza andreari erantzun dio esanez ez dakiela ondo edo gaizki lan egiten duten baina lan egiten dutela ziurtatzen diola eta berak esan duena asko mindu duela.

### Maiza and.:

Esandako hitzak gogorrek direla esan dio baina errealitatea hori dela.

### Kontu-hartzaile jn.

Prozedurari dagokionez, proposamenaren onarpena hasierako onarpena dela adierazi du eta jendaurrean 15 eguneko epean argitaratu ondoren behin betiko bihurtuko dela ez bada erreklamaziorik aurkezten.

Jarraian proposamenak bozkatu dira:

### Bozketa

1.- San Bartolomeko proiektua

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

2.- Plan Orokorra idazteko 3urterako kreditu konpromisoa.

Aldeko botoak: 6 ( EAJ-PNV 5 eta PSE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 7 (EH-Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 0

3.- EH-Bildu eta Ordizia Orainen proposamena, San Bartolomeko obren inbertsioa kenduz (bozkatu dena kenduz):

Aldeko botoak: 7 (EH-Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 6 ( EAJ-PNV 5 eta PSE-PSOE 1)

Abstentzioa: 0

Barrenako aparkalekua idazteko inbertsioa baztertu egin da.



## **11.- Enirio-Aralarreko Akzio Planaren inguruko ORDIZIA ORAINEN mozioa**

### Sukia andrea

Azaldu du Enirio Aralar Mankomunitatearen azkeneko Zuzendaritza Batzordean, ekainaren 21ean egin zenean, Zaldibiako ordezkariak Lehendakariari Zuzendaritza Batzorde baten deialdia egiteko eskatu ziola epe laburrean, Akzio Planari buruz Mankomunitateko 7 udalerrik egin zuten eskaera aztertzeko, zehazki ARANZADI ELKARTEAri eskatutakoa, Enirio-Aralar mendiei buruzko azterketa edo plan integral bat egin dezan.

Ordiziak eskaera horrekin bat egiteko eskatu du Sukia andreak, era horretan 8 udalerrizateko eta ondorioz Alkateak horren alde bozkatzeko.

Gainera, idatzian adierazten den moduan, gaiari irtenbide bat bilatu behar zaio.

### Alkate jn.

Erantzun dio esanez hurrengo astelehenean ezohiko Batzordea izango dela, 19:00etan.

### Sukia andrea

Esan dio kontua ez dela Batzordearen deialdia egitea, Ordizia Orainek eskatzen duena da 7 udalerriek aurkeztutako eskaerarekin bat egitea Ordiziak eta gaur eta hemen osoko bilkurak erabakitzen duena bozkatzea.

### Huesa and.

Jendartean dagoenak, esan du plan integrala egiteko Aranzadi Elkarteari eskaera egitearekin eta Ordizia Oraineko ordezkariarekin guztiz bat egiten duela, eta gainera, gehitu du, horrekin batera, 2015-2019 Akzio Planak onartutako pisten obrak eten beharko lirakekeela.

### Alkate jn.

Erantzun dio esanez oraindik ez duela Ordizia Orainen mozioa aztertzeko astirik izan baina bere posizioa zein den jakinaraziko duela Batzordea egin aurretik.

### Bozketa

Aldeko botoak: 7 (EH-Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 5 (EAJ/PNV 5)

Abstentzioa: 1 (PSEE-PSOE 1)

### Huesa and.

Mankomunitatearen azkeneko Batzordera azaldu zen ganaduzaleetako batek zuzenean mehatxatu zuela esan du, eta Aralarren argazkiak edo bideoak ateratzen norbait ikusten bazuen beraien gainetik pasako zela esan zuen.

Alkateari eskatu dio hurrengo Batzordean gertaera aipatzeko eta esandakoaren gaitzespen publikoa egiteko. Aktan jasotzea nahi dute.

### Alkate jn.

Erantzun dio esanez Batzordea amaitzean esaldi hori esan zuen pertsonarekin egon zela bere portaera gaitzesteko.

### Huesa and.

Esan du beraiek (Landarlan Elkartea) sektore guztiekin hitz egiteko prest daudela eta Mankomunitatearen Lehendakariak ere prest egon beharko lukeela beraiekin hitz egiteko.



## **12.- Eskerak eta galderak.**

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.